

2019ko

MEMORIA

**CEAR-Euskadi,
babesa gara**



CEAR EUSKADI

Euskadiko Errefuxiatuen
Laguntzarako Batzordea
www.cear-euskadi.org

2019 zifratan



Gure lantalde juridikoak
1.127 pertsona artatu
ditu.



300 pertsonari baino
gehiagori egin diegu
harrera Oñatiko eta
Tolosako gure zentroetan.



59 pertsona artatu
ditugu Harrera
programako pisuetan.



Gizarteratze-taldeak
727 pertsona artatu
ditu.



300 parte-hartzaitik
gora izan ziren “Mugak
gurutzatzen dituzten
bizitzak” biltzarrean.



Bidaiderik gabeko **307**
gazte artatu ditugu *Hemen*
programaren baitan.



1.082 parte-hartzai-
le izan ziren *Bizilagunak*
kulturarteko bazkarietan,
Araban.



Arrazagatiko
diskriminazioaren **11**
biktima artatu ditugu
Eraberean sarearen bidez.

Javier Galparsoro

CEAR-Euskadiko presidentearen hitz batzuk



Javier Galparsoro, CEAR-Euskadiko
presidentea. ©Nerea Galparsoro

Munduan 79,5 milioi pertsonak derrigortuta beren etxeak utzi behar izan dituztela ulertzen dugunean (horien artetik, errefuxiatuak dira ia 30 milioi, eta erdia baino gehiago adingabeak dira)... Nazionalitate bat izatea ukatzen zaien milioika pertsona aberrigabe ere badirela jakiten dugun egunean... Munduko hainbat tokitan pairatzen dituzten jazarpenaren eta beraiek sortu ez dituzten gatazka bidegabeen eta ankerren ondorioz bi segundoz behin, egunero, beste pertsona batek ihes egin beharra duela jakiten dugun egunean... Egun horretan bertan ohartu behar gara CEAR-Euskadik egiten duen lana funtsezkoa dela.

Joan den urtean zehar, adorea, laguntza eta babesa eman diegu gure harrera-herrialdera, EAERA, bake, askatasun eta segurtasun bila etorritako 4.826 pertsonari baino gehiagori.

Gure politikariak eta ordezkariak interpelatu ditugu, gurera etorri diren pertsona horien harrerarekin, egonaldiekin, onarpenarekin eta aitortzarekin lotutako ez-betetzeei, mugei eta eskakizunei buruz.

Zalantzan jarri dugu gure bizimodua, gure krisialdiak eta gure kexak, erosotasunetik eta mendebaldearen amnesiatik eginak. Elkarrekin lan egin dugu pertsonen bizitza prekarizatzen ez duten eredu sozialen alde. Guztion bizikidetzaren alde eta denok behar dugun eta planetarentzat beharrezkoa den aldaketa baten alde borroka egiteko.

*Javier Galparsoro
CEAR-Euskadiko presidentea*



“Irribarrea eragin didazue, eta bihotza irekitzen lagundu”.

Souleyman Aquarius itsasontzian iritsitako asilo eskatzaile bat da.

Nor gara?

30 urtetik gora daramatzagu EAEn erakunde erreferente izaten, **asilo-eskubidearen aitortzaren** aldeko borrokan. CEAR-Euskadik **errefuxiatuen, aberrigabeen eta migratzaileen** eskubideak defendatzen ditu, eta harrera egin dien gizarte berrian garatzen laguntzen die.

Gure historia **Comisión Española de Ayuda al Refugiado (CEAR)** erakundearekin paraleloan doa. **1989an, proiektu horren atal bat abiarazi zen EAEn**, baina **1996an** eratu zen **CEAR-Euskadi Gobernu Kanpoko Erakunde (GKE)** gisa, **nortasun juridiko osoa** zuelarik, eta kide duen **CEAR** erakundeari eskua emanda ekin zion bideari.



Bi erakundeok, misio bera dugu:

MISIOA

Gure misioa da nazioarteko babesa behar duten edota kanporatuak izateko arriskuan dauden errefuxiatuen, lekualdatuen, aberrigabeen eta etorkinen giza eskubideak eta garapen osoa babestea eta sustatzea.

Lantaldea

Honako hauek osatzen dute CEAR-Euskadiren lantaldea: soldatapeko langileek (52), bazkideek (180) eta boluntarioek (57).

CEAR-Euskadi
erakundeak,

52

personak

lan egiten dute Bizkaiko,
Arabako eta Gipuzkoako
gure bulego eta
zentroetan.

Erakundeak

180

bazkide ditu eta

57

boluntario

Erakundeko kide garen guztiok honako ikuspegi hau dugu:

IKUSPEGIA

CEAR-Euskadi aldaketarako eta eraldaketarako eragile gisa sendotuko da. Diskriminaziorik gabeko gizarte iraunkor eta justu bat lortzea du helburu, aukera-berdintasunean eta nortasun indibidual zein kolektiboarekiko errespetuan oinarritutakoa, eta, horretarako, integrazio-, gizarte-, kultura-, lan- eta politika-prozesuak lantzen ditu, beste hainbat interes-talderekin sarean arituz.

Eta honako balio hauek ditugu ardatz:

- Justizia
- Konpromiso etikoa
- Eraginkortasuna
- Efizientzia
- Zaintza
- Independentzia
- Parte-hartzea
- Gardentasuna
- Konfiantza
- Aktibismoa / inplikazioa / konpromisoa



Gorputz-adierazpeneko lantegia; erakundeko zenbait boluntariok, errefuxiatuk eta langilek parte hartu zuten. © CEAR-Euskadi

Nola lan egiten dugu?

Gure plan estrategikoetan finkatutako ildoak jarraitzen diegu. Gaur egun, **IV. Plan Estrategikoa** hasi dugu, hamarkadaz aldatzearekin batera.

Hauek dira gure eguneroko lana bideratzen duten **helburu nagusiak**:

- Immigranteen, errefuxiatuen eta aberrigabeen garapen integrala.
- Immigranteen, errefuxiatuen eta aberrigabeen eskubideen defentsa, nazioarteko babesa eta kulturarteko elkarbizitzaren sustapena.
- Prozesuen bidezko kudeaketa finkatzea.
- Lantaldeko kideen garapen pertsonala eta profesionala.
- Baliabide ekonomikoen kudeaketa eraginkorra eta iraunkorra.
- Ekitatearen sustapena erakundearen bizitzan eta ekintzetan.

Ekitatearen Aldeko Plana eta Berdintasun Batzordea

CEAR-Euskadin uste dugu erakundeak **ez direla neutroak generoaren ikuspegitik**, gizar-tean indarrean dauden balioek, nagusi diren botere-egiturek eta emakumeak mendeko egiten dituen eta desberdinkerian oinarritzen den sistema patriarkalak baldintzatuta baitaude.

Horregatik, **Ekitatearen Aldeko Ekintza Plan** dugu, gure plangintza estrategikoaren baitan, eta **Emakunderen erakunde laguntzaile gara 2012az geroztik**.

Halaber, **Berdintasun Batzorde** bat dugu, erakundeko arlo guztietako langileek osatutakoa; batzorde hori arduratzen da, hain zuzen ere, lehen aipatutako plana gauzatzeaz.



Martxoaren 8ko manifestaziorako horma-irudiak egiteko tailerra, Gasteizen; zenbait emakume errefuxiatuk, eta erakundeko boluntario eta langile batzuek parte hartu zuten. © CEAR-Euskadi



Sarean lan egiten dugu

Gure lanaren zati handi bat hirugarren sektoreko beste erakunde batzuekin eta zenbait gizarte mugimendurekin, GKEekin eta erakunde publikoekin batera egiten dugu. Zehazki, sare hauetan parte hartzen dugu:

- Garapenerako Lankidetzarako Euskal Kontseilua eta Kontseilu Errektorea
- Euskadiko Etorrinen Laguntzarako GKE-en Koordinakundea (Harresiak Apurtuz)
- Errefuxiatuak Hartzeko eta Gizarteratzeko Erakunde arteko eta Gizarte Batzordea
- EAPN – Euskadi
- Ekosistema
- ERABEREAN. Tratu Berdintasunaren Aldeko eta Diskriminazioaren Aurkako Sarea
- Boluntariora-foroa
- Gizardatz
- Emakume eta nesken salerosketa eta sexu-esplotazioaren aurkako mahaia
- Hemen programa
- BESTEBI plataforma
- Gasteizen alokairuko etxebizitza bila dabilzanen diskriminazioaren aurkako plataforma
- Bizkaiko Ongi Etorri Errefuxiatuak plataforma
- Etxeko Langileen Plataforma
- Somos Diversxs plataforma
- Arabako Tipi-Tapa gaztelania-sarea
- Sareak Josten/Tejiendo Redes
- ZAS. Zurrumurruen aurkako euskal sarea
- Europar Batasuneko Aldi Baterako Birkokapenerako Plataforma (EU-TPR), Protect Defenders elkartearena
- Defensoras sarea eta Espainiar Estatuko Babes Programen sarea
- Kolektiba Kolonbia



Kontuak argi

Urtero bezala, aurten ere, bere kontabilitateari kontu-ikuskaritza egin diezaiotela eskatu du CEAR-Euskadik, bere borondatez; lan hori PKF ATTEST Servicios Empresariales, SL enpresak egin du, eta aldekoa izan da. Jarraian jaso diren kontuek zehatz-mehatz adierazten dute nolakoa zen CEAR-Euskadiren egoera 2019ko abenduaren 31n, ondasunei eta finantzei dagokienez.

CEAR-EUSKADI ELKARTEA (ERREFUXIATUEI LAGUNTZEKO EAE-KO BATZORDEA) BALANTZE LABURTUAK 2019KO ETA 2018KO ABENDUAREN 31N


AKTIBOA	2019	2018
AKTIBO EZ-ARRUNTA		
Ibilgetu ukiezina	62.039	4.041
Ibilgetu materiala	144.165	120.794
Epe luzeko finantza-inbertsioak	2.100	229
Aktibo ez-arrunta guztira	208.304	125.064
AKTIBO ARRUNTA		
Izakinak	1.047	1.063
Erabiltzaileak eta jardueraren bestelako berezko zordunak	115.520	24.109
Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak		
Bestelako zordunak	933.351	671.251
Epe motzeko finantza-inbertsioak	3.709	2.874
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	161.057	376.284
Aktibo arrunta guztira	1.214.684	1.075.581
AKTIBOA GUZTIRA	1.422.988	1.200.645

CEAR-EUSKADI ELKARTEA (ERREFUXIATUEI LAGUNTZEKO EAE-KO BATZORDEA)		
BALANTZE LABURTUAK 2019KO ETA 2018KO ABENDUAREN 31N		
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2019	2018
ONDARE GARBIA		
Funts propioak		
Funts soziala	213.418	213.418
Aurreko ekitaldietako soberakinak	(23.722)	(46.934)
Ekitaldiko soberakina	72.648	23.212
Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	197.243	117.686
Ondare garbia guztira	459.587	307.382
PASIBO EZ-ARRUNTA		
Epe luzeko zorrak		
Epe luzeko bestelako zorrak	161.298	166.984
Pasibo ez-arrunta guztira	161.298	166.984
PASIBO ARRUNTA		
Epe motzeko zorrak		
Epe motzeko bestelako zorrak	589.299	530.654
Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak		
Bestelako hartzekodunak	212.804	195.625
Pasibo arrunta guztira	802.103	726.279
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	1.422.988	1.200.645

CEAR-EUSKADI ELKARTEA (ERREFUXIATUEI LAGUNTZEKO EAE-KO BATZORDEA)
2019KO ETA 2018KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIEI DAGOZKIEN EMAITZEN KONTU LABURTUAK

	2019	2018
EKITALDIKO SOBERAKINA		
Jarduera propioaren sarrerak		
Bazkideen eta afiliatuen kuotak	30.647	28.325
Ekitaldiko soberakinari egotzitako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	2.091.459	962.148
	2.122.106	990.473
Salmentak eta merkataritza-jarduerako bestelako diru-sarrerak	211.506	193.906
Laguntzengatiko gastuak eta bestelakoak		
Laguntza monetarioak	(104.095)	(82.836)
Amaitutako eta fabrikatzeko bidean dauden produktuen izakinen aldakuntza	(17)	(300)
Jardueraren bestelako sarrerak	7.596	5.677
Langile-gastuak	(1.246.908)	(708.392)
Jardueraren bestelako gastuak	(913.075)	(372.507)
Ibilgetuaren amortizazioa	(27.213)	(2.660)
Ekitaldiko soberakinera transferitutako diru-laguntzak, dohaintzak eta kapital-legatuak	26.090	-
Beste emaitza batzuk	(2.294)	(149)
JARDUERAREN SOBERAKINA	73.696	23.212
Finantza-gastuak	(1.048)	-
FINANTZA-ERAGIKETEN SOBERAKINA	(1.048)	-
ZERGEN SOBERAKINA	72.648	23.212
Mozkinen gaineko zergak	-	-
Ekitaldiko soberakinean aitortutako ondare garbiaren aldakuntza	72.648	23.212
Zuzenean ondarrera egotzitako sarrerak eta gastuak		
Jasotako diru-laguntzak	42.402	52.686
Jasotako dohaintzak eta legatuak	63.245	65.000
Zuzenean ondare garbira egotzitako sarrerengatiko eta gastuengatiko ondare garbiaren aldakuntzak	105.647	117.686
Ekitaldiko soberakinaren birsailkapenak		
Jasotako diru-laguntzak	(26.090)	-
Ekitaldiko soberakinaren birsailkapenengatiko ondare garbiaren aldakuntza	(26.090)	-
Zuzenean ondare garbira egotzitako sarrerengatiko eta gastuengatiko ondare garbiaren aldakuntzak	79.557	117.686
EMAITZA GUZTIRA, EKITALDIKO ONDARE GABIAREN ALDAKUNTZA	152.205	140.898


SARRERAK



- Beste erakunde publiko batzuk
- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia
- Eusko Jaurlaritza
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Arabako Foru Aldundia
- Fundazio pribatuak
- Bazkide-kuotak, dohaintzak, ekitaldiak
- Beste batzuk

GASTUAK

- Kudeaketa
- Eragin eta parte-hartze soziala
- Esku-hartzea



Gure lana finantzatzen duten erakundeak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Laguntzaileak



OÑATI
dabilen herria



Babesa ematen diguten pertsona ezagunak

Itziar Ituñok, **“La Casa de Papel”** telesaileko aktore ospetsuak, eta **Dani Álvarez eta Begoña Beristain** kazetariak beren babesa eman digute Bilbao Refugio lasterketaren III. edizioa ezagutarazteko kanpainan. **Hemen ikus ditzakezu bideoak [HEMEN](#).**

Beste zenbait lankidetzak

Joseba Berrocal musikologo bilbotarrak aurkitu zuen **Ludwig August Lebrun** musi-

kariaren kontzertu galdua. Lebrun oboe-jole ezagunenetako bat izan zen **Mozarten** garaian. Lan hori galduta egon zen bi mendez baino gehiagoz. Aurkikuntza horri esker, **Bilbao Orkestra Sinfonikoak (BOS)** konposizioaren mundu-mailako berrestreinaldia eman zuen, **“Sopranoa eta oboe-jolea”** kontzertuko programaren baitan. Partitura horren argitalpenetik lortutako irabaziak CEAR-Euskadik egiten duen lanerako eman zituen dohaintzan.



“Pozik nago, hau bizi ahal izateko aukera berri bat delako. Baina, aldi berean, oso gogorra da ikustea zure anaia-arrebak gauza bera egiten saiatzen direla, eta ez dutela lortzen: ez dietelako Libiatik ateratzen uzten, itsasoan gelditzen direlako, edo ez dagoelako Aquarius bezalako beste ontzi bat, haiek erreskatatuko dituenik, edo harrera egingo dien herrialderik. Oso triste da benetan”.

Reward, Aquarius itsasontziak erreskatatutako pertsonetako bat da.



2019ko mugarri nagusiak

Nazioarteko babes eskatu duten pertsonen harrera egiteko sistema


Sistema zentralizatua da, espainiar Estatuaren eskumenekoa, eta izaera mistoa du, Estatuak zuzenean kudeatutako zenbait zerbitzuek eta erakunde espezializatu batzuek osatzen baitute.

Sistemak aldi baterako 9.000 harrera plaza inguru ditu (400 baino gehiago Euskadin). Beraien oinarritzko beharrei aurre egiteko baliabiderik ez dituzten pertsonak sartu daitezke, beti ere nazioarteko babes eskatzaileak badira.

Honako hau da sistemaren **helburua**: eskaintzen dituen zerbitzuen hartzaile diren pertsonen gizarteratze-prozesuan laguntzea, autonomo izateko tresnak emanez, herritar gisa dituzten eskubideak baliatu ahal izateko.

CEAR-Euskadik, eta inor atzean ez uzteko eta EAera babes eske iristen diren pertsona guztien beharrei erantzun ahal izateko, **sistema osatzeko lan egin dugu azken urteotan**, gainezka egin baitu, nahiz eta esponenzialki hazi den, azken urteotan ugaritu egin baita Espainiara babes eske iristen diren pertsonen kopurua.

2019an,
CEAR-Euskadik
2.164 pertsonari
lagundu die.
Horietatik,
emakumea
da %41.



Gure zentroetako batean harreraren hartutako ama-emeak.. © Curruscu

Euskadiko harrera sistema

Zentroak

Eusko Jaurlaritzak, une batez edo behin betirako Estatuaren asilo-programatik kanpo gelditzen ziren pertsonen beharrei erantzuteko, **beste 115 plaza** irekitzea ahalbidetu zuen, **Oñatiko Larraña Etxea (80) eta Tolosako Zuloaga Txiki (35) zentroetan**. Azken horrek, gainera, udalaren laguntza ere jasotzen du, instalazioak uzten baitzizkigu.

..... Larraña Etxea, Oñati

Larraña Etxea aitzindaria eta eredu garbia da gure zentroetako harreraren alorrean; izan ere, bizilagunen laguntza handia jaso du, pertsona errefuxiatuekiko herritarren elkartasun-sare bat sortu da, eta udalaren laguntza ere jasotzen du.

2018ko urrian ireki zenetik 2019ko abendura arte, 281 pertsonari eman zaie arreta (gehienak helduak).

Gure zentroetako batean harreraren hartutako aberrigabe sahararrak. © Curruscu



Hau da profil nagusia: gizonezkoa, bakarrik dagoena, 20 eta 30 urte bitartekoa, eta jatorri afrikarrekoa. Dena den, familientzako arreta ere nabarmen ugaritu da. 2019an zehar, **27 familia artatu genituen. Horietatik 20, ama bakarreko familiak ziren, eta gehienak ardurapean adingabeak zituztenak.**

Zentro honek abuztuan ireki zituen ateak, eta, abendura bitarte, 35 pertsona artatu dituzte.

Zuloaga Txiki, Tolosa

Gehienak gizonezkoak dira, bakarrik daudenak, batez ere Mendebaleko Saharatik eta Marokotik etorritakoak.

Zenbait nazionalitatetako asilo-eskatzaileak solasaldian, kafe-garaian. © Curruscu



Hora de la comida en el centro Zuloaga Txiki de Tolosa. © CEAR-Euskadi



**“Egoera jasanezina zen,
nire osasunagatik,
giza eskubideen
urraketagatik, elikagai
faltagatik... Horregatik
joan behar izan nuen”**

Desiré. Venezuela.



Aldi baterako harrera

Estatuak nazioarteko babesa eskatu duten pertsonen eskaintzen dien harrera-sisteman sartzen ez diren errealitateei erantzute aldera, **Harrera programa, Eusko Jaurlaritzak finantzatutakoa**, sendotzeko lan egin dugu; zehazki, bikoiztu egin dira programako plaza, 2019. urtearen hasieratik.

727 pertsona
artatu ditugu
(509 gizon eta
128 emakume)

Inklusioa

Migratzaileak, errefuxiatuak, asilo-eskatzailleak eta aberrigabeak dira guztiak, zaurgarritasun-egoera larrian, bazterkeria-egoeran edo bazterkeria-egoeran egoteko arriskuan daude, edo arreta-behar bereziak dituzte. Gehienak honelakoak dira:

- 18 eta 23 urte bitarteko gazteak, etxebizitzarik gabekoak.
- Ama bakarreko familiak bereziki, eta ardurapean adingabeak dituzten familiak, oro har.
- Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak.
- Osasun-arazo larriak edo gaixotasun mentalak dituzten pertsonak.
- Luzaroko langabeak eta

- haien senideak.
- Inklusioa, Gizarte Segurantza eta Migrazioak Ministerioaren harrera-programatik kanpo gelditzen diren pertsonak, eta, askotan, beste baliabide publiko batzuk lortzeko aukerarik ez dutenak (muturreko zaurgarritasun-egoeran uzten ditu horrek).
- Asilo-eskaera ukatu dieten

pertsonak.

- Batez ere herritar venezuelarrak, asiloa ukatu zaienak, baina aldi baterako egoitza-baimena jaso dutenak, nazioarteko babesarekin lotutako arrazoi humanitarioak direla-eta.
- Pertsona migratzaileak, sare publikoak eskaintzen duen inklusio-ibilbidetik kanpo gelditu direnak.

147 pertsona
artatu ditugu
Goihaben

Goihabe programa

Bizkaiko Foru Aldundiaren Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak finantzatzen du programa hori, eta haren xedea da lurralde historiko horretan dauden eta nazioarteko babesa eskatu duten edo onartu dieten pertsonen gizarteratzen laguntzea, ohiz kanpoko egoeretan, eta arrazoi humanitarioak direla medio.

Enplegua

Hirugarren urte jarraituz, **NER group** taldearekin lankidetzan jardun dugu berriz ere, **errefuxiatuei laneratzen laguntzeko**.

NER Group elkarteko langileekin lankidetzan, taldearen boluntariora korporatiboaren bidez, "Konektatu Ner" programa gauzaten ari gara 2017az geroztik. 2019an zehar, errefuxiatuei, migratzaileei eta aberrigabeei zuzendutako zenbait talde-lantegi eskaini genituen, lana bilatzeko gaitasunei eta tresnei buruzko ezagutza hobetzen laguntzeko: enplegu-atariak ezagutzea eta erabiltzea, laneko elkarrizketak prestatzea, lan-merkatua ezagutzea, etab.

Programaren baitan, halaber, aholkularitza-fase bat egiten da; fase horretan, NER Groupeko eta gure erakundeko zenbait boluntariok laguntza zuzena ematen diete artatzen ditugun pertsoneri, lan-munduan eta gizartean barneratzeko prozesuan.



Gazte-estrategia: Hemen programa

Hamabi urtetik gora abian izan den Hemen programak lanean jarraitzen du, Bizkaiko Foru Aldundiaren adingabeentzako babes-zentroetatik atera diren immigranteekin gizarteratze-ibilbideak landuz. Egonaldia 12 hilabetetik beherakoa da. Programaren xedea da gazteak babesik gabe ez uztea, zaugarritasunerako eta gizarte-bazterketarako arriskuan. Gainera, programak harreman eta lotura osasungarriak sorrarazten ditu, haren xede diren gazteen autonomia eta gizarteratzea sustatzeko.



**2019an,
307 pertsona
artatu ditugu.
76 atzerritarta-
sun-espediente
izapidetu ditugu**

Gure erakundearen harreraren hartutako gazte nigeriarra,
Aquarius itsasontzian iritsitakoa. © Curruscu

Gure lantalde
juridikoak
1.127
pertsona
artatu ditu

Arreta juridikoa

2019an 4.826 asilo eskari aurkeztu ziren Euskadin. Horietatik, **3.395 Bizkaian, 891 Araban eta 540 Gipuzkoan.**

Venezuela, Kolonbia, Honduras eta Nikaragua izan ziren asiloa eskatu zuten herritar-tasun nagusiak.

CEAR-Euskadiren lantalde juridikoak **443 asilo eskarietan lagundu zuen eta guztira, 1.127 lagun artatu zituen.**



Aholku Sarea

Gasteizko legelari-taldeak gauzatutako atzerriartasun-programaren baitan, **748 kontsul-ta egin dituzte 597 pertsonak** (332 emakume eta 265 gizon), atzerriartasun-legediarekin lotutako gaiei buruz.

Desirék bere semea erakusten digu; ezin izan dute elkartu oraíndik. © Curruscu



Eraberean

CEAR-Euskadik 11 kasu berri artatu zituen 2019an, Eraberean sareko erakunde kide den heinean; Tratu Berdintasunaren Aldeko eta Diskriminazioaren Aurkako Sarea da, Eusko Jaurlaritzak sustatua, arrazarekin, etniarekin edo nazionalitatearekin lotutako diskriminazioaren aurka borrokatzeko. Kasu horietatik guztietatik bat epaitegietara iritsi da.

Kasu horien artetik, nabarmentzekoak dira migratzaile eta errefuxiatu batzuek alokairuko etxebizitza bat bilatzen ari zirenean pairatutakoa, Gasteizko hiri-autobus batean emakume musulman batek jasandako ahozko eraso, edo Bilboko diskoteka bateko kasua, herritar magrebtar bati sarrera ukatu baitzioten, harrera-eskubidea modu diskriminatzailean baliatuz.

Jarduketa horiek elkarlanean egiten dituzte lantalde juridikoak eta kulturarteko bizikidetzarako taldeak.

**11 kasu
berri artatu
ditugu.**

Arreta psikologikoa

Lantegi partizipatiboak egin zituzten, honako arlo hauek lantzeko: osasun integrala, loaren higieena eta gimnasia emozionala. Lantegi horietan, honako hauek ere lantzen dira zeharka: talde-kohesioa, konfiantza eta segurtasuna, eta pertsonen arteko harremanak.

Beste alde batetik, 2019an zehar, lankidetzan es-tuan jardun dugu **Bizkaiko Sare Psiko-solidarioarekin**. 2017an jarri zen abian sarea, eta, haren bidez, psikologiaren alorreko langileek, modu boluntarioan eta solidarioan, arreta psikologikoa ematen diete kolektiboko pertsoneri, zerbitzuan itxaro-zerrenda sortzen denean.

Bizkaian, sare psikosolidario batekin elkarlanean gaude, modu boluntarioan artatzen ditugun pertsoneri arreta psikologikoa eskaintzen diete.



**“Errefuxiatu gisa onartuak izatea?
Hori izango litzateke
garrantzitsuena. Oso pozik eta
eskertuta egongo ginateke”**

**María asilo-eskatzaile salvadortarra da,
mara direlakoek jazarria.**



Argazkia ez dator bat aipamenarekin, Mariak ezin baitu bere aurpegia erakutsi, segurtasun-arrazoiengatik. Argazkian ageri den pertsona emakume Amazigh bat da, EAEn bizi dena duela hainbat urtetik.

Eragina

“Mugak gurutzatzen dituzten bizitzak. Hegoaldeko mugari buruzko analisi feminista bat” biltzarra antolatu genuen.

Hegoaldeko muga gurutzatzen duten emakumeek jasan beharreko indarkeria matxistak ikusaraztea xede duen ekimen bat gauzatu genuen. Otsailan, **Melilla, Ceuta eta Marokora** joan ginen, Saharaz hegoaldeko emakumeek zer errealitate bizi duten eta egiten dituzten ibilbideetan zer oztopo topatzen dituzten jakiteko.

Urriaren 3an eta 4an, Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan, **“Mugak gurutzatzen dituzten bizitzak. Hegoaldeko mugari buruzko analisi feminista bat”** biltzarra antolatu genuen, eta **300 pertsona baino gehiagok** hartu zuten parte. Biltzarrean, giza eskubideen alorreko zenbait erakunderekin batera (APDHA, Iridia, Algeciras Acoge, Tangerko Migrazio Ordezkaritza eta Elin elkarte, besteak beste), hausnartu genuen hegoaldeko muga, Saharazko hegoaldeko emakumeen eskubideen urraketa larriak gertatzen direla. Patriarkatuak, arrazismoak, klasismoak eta kolonialismoak bat egiten dute, eta emakume beltzak muturreko zaugarritasun egoeran uzten ditu horrek indarkerien aurrean.

300
pertsonak
baino gehiagok
hartu zuten
parte.



Biltzarreko familia. © EcuadorEtxea

“Erronkak, Euskadin salerosketa-egoeran dauden emakume eta neskatilen babes eraginkor baterantz egiteko, nazioarteko babesaren ikuspegi batetik” txostena argitaratu dugu

Txostenean, lantaldeak 2018ko abendutik 2019ko apirilera bitarte egindako ikerketaren ondorio nagusiak jaso dira. Ikerketaren xedea zen jakitea zergatik ez duten lortzen asilo-eskubidea esplotazio sexualerako xedez salerosketa-egoeran dauden emakumeek, asilo-eskubidea badagokie ere.

Honako hau aztertu genuen zehazki: erakundeen zer jardunbide ari diren hori eragiten, Euskal Autonomia Erkidegoan. Kontu hori argitzeko, elkarrizketak egin genizkien salerosketa-biktimak artatzeko erkidegoko koordinazio-protokoloaren ezarpenarekin zerikusia duten zenbait erakunde-eragileri eta asiloarekin lotutako zenbait agintariri. Ikerketaren emaitzak Bilbon antolatutako jardunaldi batean aurkeztu ziren; Emakume eta Nesken Salerosketa-aren Aurkako Erkidegoko Mahaiko kide diren elkar-teenk eta erakundeek parte hartu zuten jardunaldian.

Lanaren argitalpenaren ondotik, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak CEAR-Euskadiri eskatu zion eman zezala prestakuntza bat, euskal eragileei zuzendutakoa (erkidegokoak, foru-aldundietakoak eta tokikoak), txostenaren eduki nagusiak gizarteari ezagutarazteko, eta antola zezala saio praktiko bat, kasu errealak lantzeko, jardunbide okerrak hauteman eta beste aukera batzuk adoste aldera. Abenduan egin zen prestakuntza hori, Gasteizen, eta eragin eta arreta juridikoko lantaldeetako zenbait kidek parte hartu zuten.



“Erronkak, sexu-esplotaziorako salerosketatik bizirik atera diren emakumeen nazioarteko babesaren alorrean” jardunaldia

Ekainean, topaketa bat egin genuen Bilbon “Erronkak, sexu-esplotaziorako salerosketatik bizirik atera diren emakumeen nazioarteko babesaren alorrean” izenburupean. ACCEM, Women’s Link Worldwide eta CEAR-Euskadi elkarteek parte hartu genuen. Gure erakundeak lehen aipatutako ikerketaren ondorioak jasotzen dituen txostena aurkeztu zuen.

Salerosketaren Aurkako Erakunde arteko Koordinaziorako Erkidegoko Mahaiko kide diren elkartei eta erakundeetara zuzenduta zegoen jardunaldia, eta **30 pertsonak baino gehiagok** parte hartu zuten.



Jardunaldia. © CEAR-Euskadi

Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Euskadiko Programa

“El Abrazo” solidaritate feministako misioa, Hondurasen

Urtarrilean, “El Abrazo” solidaritate feministako misioan parte hartu genuen. Hondurasko Emakume Defendatzaileen Sareak eta Giza Eskubideen Emakume Defendatzaileen Ekimen Mesoamerikarrak (IMDefensoras) antolatu zuten ekimena; CEAR-Euskadik haiekin elkarlanean dihardu babes integral feministaren alorrean.

Hondurasen giza eskubideen urraketa larriak gertatzen direla eta testuinguru horrek emakume defendatzaileei bereziki eragiten diela kontuan hartuta (gainera, kultura patriarkalak eragindako indarkeriak ikusezin gelditzen dira egoera horretan), misioak, elkartasun feministaren ikuspegitik, Hondurasko emakume defendatzailei



“El Abrazo” misioako familia. © IMDefensoras

lagundu zien, beren aktibismoa sendotzeko, beren borrokak ikusgarri egiteko eta nazioarteko elkartasuna sustatzeko.

Hondurasako giza eskubideen egoeraren jarraipenerako misioa

Hau ere urtarrilean, **Eusko Jaurlaritzako** (Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia), **Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordeko** eta **giza eskubideen alorreko zenbait elkartetako** (Mundubat eta CEAR-Euskadi) ordezkari osatutako euskal ordezkari talde bat Hondurasera joan zen,

Babeserako Euskal Programan harreraren hartutako pertsonak jatorri-herrialdera itzuli ostean haien jarraipena egiteko ekintzen esparruan.

2018an, programak harrera egin zion EAEn Hondurasko defendatzaile bati, **Hondurasko Atxilotu Desagertuen Senideen Batzordeko** (COFADEH) kide bati, hain zuzen ere. 2016an, erakunde bereko beste kide batek ere parte hartu zuen programan.



COFADEH elkartearen egoitza, barrutik. © CEAR-Euskadi

Tegucigalpan eta La Paz departamentuan egon zen ordezkari taldea. Hainbat bilera egin zituzten giza eskubideen alorreko erakundeekin, gizarte-mugimenduekin,

Hondurasko erakundeekin, nazioarteko erakundeekin eta diplomazia-gorputzarekin. Honako ondorio hauek atera zituzten bilera horietan:

- Pobretze-egoera larria dago, orokortua.
- Feminizidio-indarkeria eta LGTBI pertsonen aurkako indarkeria dago, mara taldeek eraginda.
- Oposizio politikoaren jazarpena eta lurrak kentzea gertatzen dira, erauzketa-industrien eskutik.
- Giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak eta haien erakundeak eta kolektiboak mehatxuak, behartutako kaleratzeak eta kriminalizazio-prozesuak jasaten dituzte, tokiko eragileen, erauzketa-enpresen, Estatuaren ordezkarien, elizen eta estatutako eta estatuaren inguruko segurtasun-indarren eskutik.

Gainera, eta 2017ko uztaileko bisitan hartutako konpromisoa betetze aldera, ordezkari berriz bildu zen Berta Cáceresen familiarekin, lenca herriaren buruzagiaren erailketagatiko prozesu judizialaren jarraipena egiteko.

TXOSTEN honetan jaso dira euskal ordezkariak egindako bileren zerrenda, eta bileretatik ateratako ondorioak eta gomendioak.

Giza eskubideen hiru emakume defendatzaile kolonbiarren harrera

2019an, giza eskubideak defendatzeko egiten zuten **lanagatik arriskuan zeuden hiru emakume** iritsi ziren EAera, Babeserako Euskal Programaren baitan. Honako hauek dira emakume horien profilak:

- Nasa herriaren buruzagi indigena, Triunfo Cristal Páez babeslekukoa (Florida, Valle del Cauca), **Valle del Cauca Eskualdeko Erakunde Indigenako (ORIVAC)** eta Kolonbiako Eskualdeko Erakunde Indigenako (ONIC) kidea.
- Caloto (Cauca) udalerriko Yarumito Komunitate Batzordearen legezko ordezkaria, eta Giza Eskubideen Kontseilaria **Cauca Iparraldeko Komunitate Batzordeen Elkartean (ACONC)**.
- Giza eskubideen defendatzailea, **Preso Politikoen Elkartasunerako Batzordeko (CSPP)** kidea, eta Herrien Kongresuko kidea (Medellín, Antioquia).

Mugarik Gabe eta Emigrad@s sin Fronteras elkartean eskutik, hiru defendatzaileek agenda politiko bat landu zuten EAEn, Espainiar Estatuan eta Europan, eta, horri esker, nazioarteko laguntza-sareak zabaldu eta sendotu ahal izan dituzte, eta, horrela, segurtasun eta babes handiagoz itzuli ahal izan dira beren lurraldeetan giza eskubideen defentsan egiten duten lanera.

Defendatzaile horietako bi, **Raquel Trujillo eta Verónica López, Tantaka TV** telebista-katean elkarrizketatu zituzten, eta beren herrialdeko egoerari, beren borroka kolektiboari eta beren ametsi buruz hitz egin zuten.

Sakatu **HEMEN** elkarrizketa ikusteko.

Kolonbiako giza eskubideen egoeraren jarraipenerako misioa

Uztailean, **Eusko Jaurlaritzako** (Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia), **Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide eta Bardintasun Batzordeko** eta **giza eskubideen alorreko zenbait elkartetako** (Mugarik Gabe, Emigrad@s sin Fronteras eta CEAR-Euskadi) ordezkari osatutako euskal ordezkari talde bat Kolonbiara joan zen, Babeserako Euskal Programan harreran hartutako pertsonak jatorri-herrialdera itzuli ostean haien jarraipena egiteko ekintzen esparruan.

Ordezkaritzak **bost eskualde bisitatu zituen** (Buenaventura, Valle del Cauca; Santander de Quilichao, Cauca; Resguardo Triunfo Cristal Páez, Florida, Valle del Cauca; Medellín, Antioquia;



Kolonbiara joandako euskal ordezkari talde osatutako familia. © CEAR-Euskadi

eta Bogota), eta hainbat bilera egin zituzten giza eskubideen alorreko erakundeekin, gizar-te-mugimenduekin, Kolonbiako erakundeekin, nazioarteko erakundeekin eta diplomazia-gorputzarekin.

Honako ondorio hauek atera zituzten bilera horietan:

- Gobernu kolonbiarraren eta FARC-EPren arteko bake-akordioa benetan, modu eraginkorrean eta osoki ezartzeko oztopo ugari daude.
- Gatazka gaiztotzen ari da: giza eskubideak, eta bereziki herri indigenenenak, herri beltzarenak eta hiri-sektoreenak, defendatzen dituzten pertsonak mehatxuak jasotzen dituzte, eta kriminalizatu egiten dituzte.
- Indarkeria erabiltzen da lurrak kentzeko tresna gisa; hori horrela, besteak beste, atzerriko inbertsioak sartzen dira, ondasun komunak ustiatu nahi dituzten megaproiektuen bidez (industria hidroelektrikoa, meatzaritza, azpiegiturak eta portuen hedapena, esate baterako).

TXOSTEN HONETAN jaso dira euskal ordezkariak egindako bileren zerrenda, eta bileretatik ateratako ondorioak eta gomendioak

Bisita Buen Pastor espetxera (Bogota) eta Ituango udalerrira (Antioquia), Kolonbian

Behin bisitaldia itxitakoan, agenda ofizialaz kanpo, giza eskubideen alorreko **Mugarik Gabe, Emigrad@s sin Fronteras eta CEAR-Euskadi** erakundeek, **EH Bildu eta Elkarrekin Podemos** alderdi politikoetako ordezkariekin batera, egonaldia luzatu genuen Kolonbian, eta beste bi bisita egin genituen, **giza eskubideen defendatzaileen aurka irekitako prozesu judizialekin eta lurraldeetako erauzketarako megaproiektuen lotutakoak.**

Bogotan, bisitaldia egin genuen **Buen Pastor emakumeen espetxera**; Unibertsitate Publikoako lau emakume defendatzaile daude atxi-



Agerraldia Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordearen aurrean. © Eusko Legebiltzarra

lotuta han, **“Caso Andino”** delakoan inputatu gisa, eta topaketa zabal bat egin genuen se-
nideekin. Bisitaldiaren ondoren, beste ekintza batzuen artean, iritzi-artikulu bat argitaratu
genuen El Diario Norte egunkarian, parte hartu genuen giza eskubideen alorreko hiru elkar-
teok sinatuta. **Irakurri artikulua [HEMEN](#).**

Ituango udalerrian (Antioquia), **Hidroltuango megaproiektu hidroelektrikoaren erai-
kuntzaren ondorioz lekualdatutako komunitateekin** bildu ginen; hondamendi ekologikoa
eta soziala eragin ditu proiektuak lurralde horretan. Proiektuak zenbait banketxe europar-
rren finantziazioa du, besteak beste, **BBVA** banketxearena.

Bisita horren harira, 2019ko azaroan, Mugarik Gabe, Bakea eta Duintasuna – OMAL, Emi-
grad@s sin Fronteras, Mundubat eta CEAR-Euskadi elkarteok Milena Flórez eta Genaro de
Jesús Graciano defendatzaileei (Ríos Vivos Antioquia mugimenduko kideak eta megaproie-
ktuak kaltetuak) lagundu genien EAEn zehar egin zuten bira politikoan. Hainbat bilera egin
zituzten euskal erakunde publikoekin (Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko
Udala eta Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordea), elkarteekin eta
gizarte-mugimenduekin, eta BBVArekin biltzeko eskaera bat ere egin zuten, baina, urtearen
amaieran, banketxea erantzun gabe zegoen artean.



Hidroltuangora egindako bisita. © CEAR-Euskadi

Bizilagunak Araba: kulturarteko bazkariak, mila pertsona inguru biltzen dituztenak

Seigarren urte jarraituz, azaroaren 17an antolatu genuen jarduera hau. Aurrez elkar eza- gutzen ez duten eta kultura desberdinetakoak diren familiak batzen ditugu binaka, igan- de batean bazkaritara elkartu daitezten, elkar ezagutzeko eta adiskidetasun-harreman bat hasi ahal izateko. **Arabako Foru Aldundiak** finantzatu du jarduera hau laugarren urtez, eta antolatzen lagundu du, probintziako **Zurrumurruen Aurkako Estrategiaren** esparruan (he- rritarrak eta erakundeak gezur eta zurrumurru arrazisten eta xenofoboan aurka daudela agerian uztea du xede).

Hain zuzen ere, Bizilagunak programa oso kutuna dugun zerbait ezagutarazteko modu bat da, **gure etxeak**, alegia. Ildo horretatik, bazkari horiek herritarren keinu kolektibo bat dira. Parte-hartzaileek beren etxeetako edo txokoetako ateak irekitzen dizkiote kultura-anizta- sunari, eta, aldiz, itxi egiten dizkiete migratzaileekiko eta errefuxiatuekiko arbuioa eragiten duten mezu populistei.

Bazkariak **15 herritan** egin ziren, Lautada, Aiaraldea, Mendialdea eta Añana kuadrilletan eta Gasteizen. Azaroaren 30ean, Bizilagunak Araba ekimenean parte hartutako familia guztiei eskerrak emateko topaketa egin genuen, Gasteizko EHUko Letren Fakultatean.

Bizilagunak ekimenean parte hartutako familien topaketa. © CEAR-Euskadi



1.082 pertsona
46 nazionalitate
Kulturarteko **72** bazkari
egin dira etxeetan eta
txokoetan, Araba
osoan zehar

“Sua” liburu ilustratuaren argitalpena

Sua du izenburu **CEAR-Euskadiren fikziozko liburu ilustratu berriak. Herritarrak gorroto-eta xenofobia-diskurtsoaren kontra mobilizatzeko tresna** gisa idatzitako, diseinatutako eta argitaratutako liburua da.

Emakume baten istorioa kontatzen du liburuak eleberri moduan: su-hiltzailea da, eta, goiz batean, esnatu eta leihotik begiratutakoan, sute bat ikusten du urrutira. Sua itzaltzera joatea erabakitzen du. Kalera atera, eta euria ari duela ikusten du. Baina hiria bustitzen ari den euri hori gasolina da; tantak diskurtso politiko xenofoboetako hitzak dira, eta herritarren gainean isurtzen dira gorrotoa bultzatzeko, eta kohe-sioa erretzen duten sute sozialak eragiteko.



Protagonistak sutera arte egiten duen ibilbidean zehar, zenbait tresna **judizial, instituzio-nal, kazetaritzako eta hiritar** aurkezten dira, eta azaltzen da pertsona arruntok horiek balia ditzakegula “gasolinari” eta diskurtso politiko xenofoboeri erantzuteko.

Liburua sortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren laguntza jaso dugu.

“Ausartak” hitzaldia

246
parte-hartzaile

Urtero antolatzen dugu jarduera kultural hori, **Tratu Berdintasunaren Aldeko eta Diskriminazioaren Aurkako Euskal Biltzarraren** esparruan (Eraberean Sareak bi urtez behin antolatzen duen biltzarra), arrazismoari eta xenofobiarri aurre egiten dioten pertsona ausartei ahotsa eta ikusgarritasuna emateko.

Aurten, hitzaldi gisa antolatu genuen jarduera, Gasteizko Arte Garaikideko Museoan.



2019ko Ausartak topaketa. © CEAR-Euskadi

Giza eskubide kulturalak aldarrikatzen eta defendatzen dituzten emakume ausartak izan zituen ardatz; zehazki, **janzki identitarioak erabiltzeko giza eskubidea** defendatzen dutenak (belo islamiarra edo hijaba, baina ez hori bakarrik). Hitzaldian, beren esperientziak kontatu zituzten hijaba jantzita eramateagatik edo ez eramateagatik diskriminazioa eta ahozko erasoak pairatzen dituzten emakumeek: gorrotoaren diskurtsoaren eta diskurtso mingarri xenofoboaren eta islamofoboaren biktimak dira. Maya Amrane, Sumaya del Peral eta Ikram Bouzalnat hizlariak ere parte hartu zuten; diskriminazioaren gaia landu zuten, biktimen identifikazioaren, hurbilketa- eta erreparazioaren ikuspegitik. **VestiMentes** liburu ilustratuaren aleak banatu ziren 246 parte-hartzaileen artean.

Marketina

Birziklapena, artea eta babesak giro iraunkor batean

Plastik Red ekimenarekin lankidetzan gauzatzen dugun proiektu partizipatiboa da. Ekimenaren ikuspegia da harrera-programan dauden errefuxiatuek beren **sentipenak adieraz ditzaketela, arte plastikoaren bidez, eta plastikoak birziklatuz.**



Jarduerako parte-hartzaileen topaketa.
©Plastik Red



Europa, la gran mentira.
©José Antonio Larauri

Araba Aretoan “Mugarik gabeko koloreak” erakusketa egin zen, CEAR-Euskadiren alde

“**Mugarik gabeko koloreak**” plataformako kide diren **30 euskal artistak baino gehiago** beren akuarela-, akriliko- eta olio-pinturak eta argazkiak erakutsi zituzten **Vitalen Fundazioaren Erakusketa Zentroko** Araba aretoan.

Ekimenaren xedea zen kulturartekotasuna sustatzea, errefuxiatuek zer zailtasuni aurre egin behar izaten dieten ulertzea, CEAR-Euskadik egiten duen lana

ezagutarazten laguntzea, eta parte-hartze soziala sustatzea. Maiatzaren 7tik 31ra bitarte egon zen ikusgai erakusketa. Artelanen salmentatik lortutako irabaziak **gure erakundearen programei laguntzeko erabili ziren.**

Bilbao Refugio lasterketa 2019

400 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten Bilbao Refugio lasterketaren III. edizioan. Oraingo honetan, errefuxiatuek EAera iritsitakoan bizi dituzten zailtasunak ikusarazi nahi genituen.

Gainera, **CEAR-Euskadik Oñatin, Gasteizen, Donostian eta Bilbon harreran hartutako 40 errefuxiatuk** parte hartu zuten lasterketan. Ibilketan beteranoak diren zenbait lasterkarik ere parte hartu zuten, hala nola Youssef En Nouary korrikalariak, gure erakundeko kide denak. Hitz hauek esan ditu: *“lasterketak jendea sentsibilizatzeko aukera ematen du, eta pertsona bakoitza den horregatik baloratua izateko aukera”.*

400

parte-hartzaitetik
gora



Lasterketaren irteera. © EcuadorEtxea

Boluntarioria eta parte-hartze soziala

Jarduera politikoak eta komunitarioak errefuxiatuentzat eta boluntarioentzat

2019an zehar, honako jardura hauek egin genituen:

- **Horma-irudien ibilbidea Gasteizen.** Ibilbide bat egin genuen hiriaren bihotzean, hiriko artistek eta herritarrek taldean egindako horma-irudiak ikusteko.
- **Munduko Arrozak ekimena:** kulturartekotasuna eta pertsona eta gizarte-erakundeen arteko harremanak sustatzea du xede, eta Bilbon egiten da.
- **Boluntarioria-azoka EHUren Donostiako campusean.** Arreta ematen jarduten dugun pertsonotako batzuek babestu genuen ekimen hori, eta erakundea bera eta erakundeetan parte hartzeko moduak aurkeztu genituen.
- **Gorputz adierazpeneko lantegia, Yoselyn Falconetik dinamizatua** (Nazioarteko Dantza Kontseiluko kidea da, eta CEAR-Euskadiko erabiltzailea).
- **Bilboko San Silvestre; SD Korrikazaleak** elkarteak antolatutako herri-lasterketa da, eta erakundeko erabiltzaileek eta boluntarioek ibilbideko lehen kilometroak antolatzen, kontrolatzen eta kudeatzen laguntzen dute.

Mobilizazioak beste eragile sozial batzuekin batera

Hainbat erakundek eta mugimendu sozialek bat egiten dute immigranteen eta errefuxiatuen eskubideen aldeko lanean. Aurten, lantalde bat eratu dugu Ongi Etorri Errefuxiatuak, Ellacuría Fundazioa, Amnistia Internazionala, SOS Arrazakeria eta Famek emakume-taldearekin batera, **Errefuxiatuen Nazioarteko Eguneko (ekainaren 20a)**



Martxoaren 21eko manifestazioa, Bilbon. © EcuadorEtxea

eta Migratzaileen Nazioarteko Eguneko (abenduaren 18a) mobilizazioak antolatzeko. Ibilbidea, manifestua eta lemak prestatzeaz gainera, mobilizazioak ezagutarazteko eta migratzaileen eta errefuxiatuen kolektiboen parte-hartzea sustatzeko lanak egin zituen taldeak.

CEAR-Euskadiren topaketa Oñatin

Erakundearen urteroko Parte Hartze Sozialaren Topaketa **Oñatin** egin genuen aurtan, **Larraña Etxea zentroan. 56 parte-hartzaile izan ziren:** boluntarioak, artatzen ditugun pertsonak, erakundeko langileak, laguntzaileak eta zuzendaritza-batzordea.

Topaketan, honako gai hauek landu ziren: erakundearen estrategia, genero-arrazoiengatikoko jazarpena, parte-hartze sozialaren bidez erabiltzailean ahalduentzaren gaia eta aisialdia gizarteratzeko tresna gisa baliatzearen kontua.

Aisialdi Taldeak antolatutako jolas partizipatiboak. © CEAR-Euskadi



Komunikazioa

CEAR-Euskadiren aurkezpen-bideoa

Komunikazio-atalak bideo bat egin du Curruscu produkzio-etxearekin; erakundeko errefuxiatuek eta langileek parte hartu dute, “esku” protagonista gisa. Bideoan, nor garen eta zer egiten dugun azaltzen da, modu originalean eta didaktikoan. **IKUSI BIDEOA.**

507 agerraldi prentsan,
irratian eta telebistan.

4.047 jarraitzaile Facebooken.

1.876 jarraitzaile Twitterren.

154 izen-emate Youtubeko
gure kanalean.

53.462 erabiltzaile

CEAR-Euskadiren webgunean.

133.468 bisita gure webguneko
orrialdeetara.

www.cear-euskadi.org

642 jarraitzaile
Instagramen.





Asilo-historiak

Ekainaren 20aren harira (Errefuxiatuen Nazioarteko Eguna), hiru asilo-historia argitaratu genituen prentsan eta gure sare sozialetan: Fátimarena, José eta Mariárena eta Souleymanena.

Fátima Chad hirikoa da, 30 urte ditu, eta **ezkontza behartu batetik** eta ezkondu zuten gizon haren indarkeriatik **ihes egin** behar izan zuen. Seme-alabak bere jatorri-herrialdean utzi behar izan zituen, eta egunen batean haiekin berriz elkartzea da bere ametsa.

José eta María El Salvadorreko bikote gaztea dira, eta alaba bat dute. Beren herrialdea utzi behar izan zuten bat-batean, **mara direlako taldeen jazarpengatik**.

Souleyman Ginea Konakrykoa da, eta duela bi urte iritsi zen **Aquarius itsasontzian**.

Bideo honetan ikus ditzakezu haien [HISTORIAK](#).

Bisitaldia Oñatiko Larraña Etxea zentrora, komunikabideekin

Ireki zenetik sei hilabete igaro zirenean, bisita bat antolatu genuen asilo-eskatzailleen zentrora, EAEko komunikabideekin batera joateko. Bisitaldian parte hartu zuten, halaber, CEAR-Euskadiko eta Larraña Etxeko zuzendaritzak eta **Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak**, Larraña Etxea erakunde horrek finantzatzen baitu.

Berlaratutako komunikabideek elkarrizketak egin zituzten instalazioetan bizi diren errefuxiatuei.



Zentrorra komunikabideekin egindako bisitako familia. © CEAR-Euskadi



EITBk egindako estalduraren prentsa-laburpena.

ALBERGUE PARA MIGRANTES DE CÁMERO
El albergue de migrantes de Oñati ha atendido a 104 solicitantes de asilo

REFUGIADOS: Informe de CAS

Euskadi registra 2.075 solicitudes de asilo hasta mayo, 500 más que en todo el año pasado

Se espera que en 2019 se dupliquen las peticiones de 2018. Venezuela, Nicaragua, Colombia y Honduras, son por ese orden las principales nacionalidades de los solicitantes

De izquierda a derecha, Javier Garza, el responsable de Casari, Patricia Sánchez y Elena Álvarez - EFE


Un total de 2.075 personas han presentado solicitudes de asilo en Euskadi durante los cinco primeros meses de este año. Esta cifra supone que hasta el mes de mayo se han presentado ya 500 peticiones más que en todo el año pasado, lo que hace prever que al finalizar 2019 se dupliquen las solicitudes del año anterior.

El Mundo País Vascoren estalduraren prentsa-laburpena

Ekainaren 20ko prentsaurrekoa

Urtero bezala, Errefuxiatuen Nazioarteko Egunaren bezperetan (ekainak 20), euskal hedabideei mundu mailako, estatuko eta tokian-tokiko asilo datuak aurkezteko prentsaurrekoa egin genuen.

15 hedabideek notziaren berri eman zuten. Euskadiren asilo egoera emateaz gain, gerturatu ziren kazetariak Reward gazte nigeriarraren istorioa kontatu ahal izan zuten, aurreko urtean Aquarius ontzian heldu zena.



“Maltak ez gintuen onartu, ez eta Italiak ere. Etsita geunden. Espainiak harrera egingo zigula esan eta Valentziara eraman gintuztenean, jaso nezakeen albisterik onena izan zen. Bizimodu duina izateko aukera ematen zidaten. Gero, harrera-programan, EAEn bideratu ninduten, CEAREkin”.

Reward. Nigeria. Aquarius itsasontziak erreskatatutako eta CEAREk EAEn harreran hartutako errefuxiatua.

[Eskaneatu kodea zure mugikorrarekin eta egin CEAR-Euskadiko bazkide]



Errefuxiatuen eskubideak defendatzen lagundu gaitzazu.

FUIMOS EXILIO,
SEAMOS REFUGIO

Bilbao

C/ Cristo, 9 B, 5ª planta.
48007 - Bilbao
Telf: 94 424 88 44

Vitoria-Gasteiz

C/ Aldabe, 7.
01012 - Vitoria - Gasteiz
Telf: 945 266 805

Donostia

Amezketarrak Kalea, 3.
20010 - Donostia
Telf: 943 242 483

CEA(R) EUSKADI

**Euskadiko Errefuxiatuen
Laguntzarako Batzordea**

www.cear-euskadi.org
Jarrai gaitzazu:

